

BERGARAKO UDALA*Iragarkia*

Udalbatzak 2011ko maiatzaren 30ean eginiko ohizko batzaren erabaki zuen kirol zerbitzuaren araudiari hasierako onarpena ematea.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, araudia behin betirako onartuta geratu da. Beraz, eta apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2. artikulua xedatzen duena betez, aipatutako erregelamendua argitaratzen da.

UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA

- A. Araudiaren sarrera orokorra.
 - 1. Araudiaren xedea.
 - 2. Araudia zedarrituko duten bestelako lege eta araudiak.
 - 3. Eragin-esparrua.
 - 4. Arau orokorrak.
- B. Erabiltzaile motak.
 - 1. Norbanakakoak: Abonatuak, eguneko erabiltzaileak eta jardueretan parte hartzen dutenak.
 - 2. Kirol entitateak.
 - 3. Eskolak.
 - 4. Bestelako entitateak.
 - 5. Laguntzaileak.
 - 6. Ikusleak.
- C. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
 - 1. Eskubideak.
 - 2. Betebeharrak.
- D. Udal instalazioen erabilera.
 - 1. Udal kirol instalazio guztietarako erabilera arau orokorrak.
 - 2. Udal pilotalekuetako erabilera arauak.
 - 3. Labegaraietako kiroldegiko erabilera arauak.
 - 4. Agorrosin Ekintza Guneko erabilera arauak.
 - a. Ur eremuko esparruak.
 - b. Fitness aretoa.
 - c. Ikusentzun- eta gainontzeko aretoak.
 - d. Kirol entitateentzako bulegoa.
- E. Udal Kirol Zerbitzuak.
 - 1. Abonuak.
 - 2. Ikastaroak.
 - 2.1. Definizioak.
 - 2.2. Zozketa eta plaza hartzea.
 - 3. Pista, frontoi eta kantxetako alokairu eta erretserbak.
 - 1. Erabiltzaile partikularrek egiten dituzten kirol instalazio erretserba prozedura arauak.
 - 2. Entitateek egiten dituzten kirol instalazio erreserbarako prozedura arauak.
- F. Azken Xedapena.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA*Anuncio*

El pleno en sesión celebrada el 30 de mayo aprobó inicialmente el reglamento del servicio municipal de deportes.

Teniendo en cuenta que en el período de exposición pública no se han presentado reclamaciones ni alegaciones, el reglamento ha quedado aprobado definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el art. 70.2. de la Ley 7/85, de 2 de abril, se procede a la publicación del mismo.

REGLAMENTO DEL SERVICIO MUNICIPAL DE DEPORTES

- A. Introducción general del reglamento.
 - 1. Objeto del reglamento.
 - 2. Otras leyes y normativas que delimitan este reglamento.
 - 3. Ámbito de influencia.
 - 4. Normas generales.
- B. Tipos de usuario.
 - 1. Individuales: Abonados, usuarios de un día y participantes en actividades.
 - 2. Entidades deportivas.
 - 3. Escuelas.
 - 4. Otras entidades.
 - 5. Colaboradores.
 - 6. Espectadores.
- C. Derechos y deberes de los usuarios.
 - 1. Derechos.
 - 2. Deberes.
- D. Uso de las instalaciones municipales.
 - 1. Normas generales de uso de todas las instalaciones deportivas municipales.
 - 2. Normas de uso de los frontones municipales.
 - 3. Normas de uso del polideportivo de Labegaraieta.
 - 4. Normas de uso de la Zona de Actividades de Agorrosin.
 - a. Recintos del área acuática.
 - b. Sala de fitness.
 - c. Sala de audiovisuales y otras.
 - d. Oficina de entidades deportivas.
- E. Servicios deportivos municipales.
 - 1. Abonos.
 - 2. Cursos.
 - 2.1. Definiciones.
 - 2.2. Sorteo y adjudicación de plazas.
 - 3. Alquiler y reserva de pistas, frontones y canchas.
 - 3.1. Normas de procedimiento para la reserva de instalaciones deportivas realizadas por usuarios particulares.
 - 3.2. Normas de procedimiento para la reserva de instalaciones deportivas realizadas por entidades.
- F. Disposición Final.

A. ARAUDIAREN SARRERA OROKORRA

1. *Araudiaren xedea.*

Araudi honen xedea da udal kirol zerbitzuen erabiltzaile-mota, beraien eskubide eta betebeharrak, eta udal kirol-instalazioak nahiz udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzuak erabiltzeko baldintzak arautzea.

2. *Araudiaren ginetik dagoen legedia.*

Araudi honetan zalantza sor dezaketen kasuetan, maila gorenagoko araudi eta legeriarekin osatuko dira.

3. *Eragin esparrua.*

Araudi hau udal kirol zerbitzuaren jarduna garatzen den instalazio eta zerbitzuetan aplikatuko da.

4. *Arau orokorrak.*

4.1. Adina. Araudi honetan adina kontuan hartu edo adin bat zehazten denean, erabiltzaileak urteak betetzen dituen hilaren lehen egunetik, adin hori duela joko da. Ikastaro eta jolas-igerilekua izango dira salbuespenak; horietan, urte horretan betetzen diren urteak hartuko dira kontuan.

4.2. Araudia betetzea. Araudi hau beteko dela ziurtatuko du udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez. Gainera, zerbitzuak bertan behera uzteko ahalmena izango du, honako kasu hauetan:

- Instalazioak kaltetzeko arriskua dagoenean.
- Erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan dagoenean.
- Ingurumeneko eta instalazioetako baldintzak eskasak direnean.
- Interes kolektiboak edo aurretik hartutako konpromisoak daudenean.

— Hala egitea eskatzen duten beste arrazoi batzuk.

4.3. Araudia betearaztea. Udalak, instalazioetako ardura-dunen eta langileen bidez, ahalmena dauka pertsonen instalazioetan sartzeko edo instalazioetatik kanporatzeko, baldin eta araudi honetako arauak behin eta berriro hausten badituzte.

4.4. Araudia onartzea. Erabiltzaileak instalazioetan edo/eta zerbitzuetan sartzeko araudi honetako arauak onartzea dakar.

4.5. Ordutegiak eta egutegiak. Udalak zehaztuko du zein egunetan eta zein ordutan ireki eta itxiko diren instalazioak. Orokorrean, ezin izango da kirol instalazioan sartu, ixteko 30 minutu falta direnean. Ixteko orduan, erabiltzaile guztiek instalazioetatik kanpo egon beharko dute.

4.6. Istripuak. Araudi honek araututako instalazioetan jardura fisikoa egitean istripurik gertatzen bada, Udalak ez du horren erantzukizunik hartuko, ez bada istripuaren arrazoia Udalari egotz dakiokela.

4.7. Lapurretak eta galdutako objektuak.

— Arropa, dirua edo beste edonolako objekturik galdu edo lapurtuz gero, Udalak ez du erantzukizunik hartuko, inolaz ere. Objektuak edo jantziak galdu dituen pertsona izango da lapurretaren edo galeraren arduradun bakarra.

— Aldagelan ahantzi edo galdutako arropak bi astetan eskatzen ez badituzte, birziklatzera bidaliko dira.

A. INTRODUCCIÓN GENERAL DEL REGLAMENTO

1. *Objeto del reglamento.*

El presente reglamento tiene por objeto regular el tipo de personas usuarias, sus derechos y deberes y las condiciones de uso de las instalaciones deportivas municipales, así como de los servicios deportivos que presta el Ayuntamiento.

2. *Legislación de rango superior a este reglamento.*

Cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de lo dispuesto en este reglamento será resuelta por la normativa o legislación de rango superior.

3. *Ámbito de influencia.*

Este reglamento será de aplicación en aquellas instalaciones y servicios en los que se desarrollan actividades deportivas municipales.

4. *Normas generales.*

4.1. Edad. Cuando en este reglamento se tenga en cuenta la edad o se señale una edad, se entenderá que la persona usuaria tendrá esa edad desde el primer día del mes en que cumple años, excepto en lo referente a cursos y piscina recreativa, en los cuales se tendrá en cuenta la edad que se cumpla en el año correspondiente.

4.2. Cumplimiento del reglamento. El Ayuntamiento, a través de las personas responsables y del personal de servicio de las instalaciones, velará por el cumplimiento de este reglamento. Además estará capacitado para suspender servicios cuando:

- Puedan producirse deterioros en las instalaciones.
- Peligre la integridad física de las personas usuarias.
- Las condiciones ambientales y de las instalaciones sean adversas.
- Existan intereses colectivos o compromisos adquiridos.

— Otros que así lo aconsejen.

4.3. Ejecución del reglamento. El ayuntamiento, a través de las personas responsables y del personal de servicio de las instalaciones, tiene facultad para negar el acceso o expulsar a aquellas personas que incumplan de forma reiterada alguna de las normas contenidas en este reglamento.

4.4. Aceptación del reglamento. El acceso a las instalaciones y/o servicios supone la aceptación de las normas de este reglamento por parte de las personas usuarias.

4.5. Horarios y calendarios. Los días y horas de apertura y cierre de las instalaciones y servicios serán fijados por el Ayuntamiento. Como norma general, no se podrá acceder al interior de la instalación deportiva municipal a falta de 30 minutos para el cierre. A la hora de cierre todas las personas usuarias habrán tenido que abandonar la instalación.

4.6. Accidentes. El ayuntamiento no se hace responsable de los accidentes que puedan sobrevenir de la práctica de la actividad física en las instalaciones reguladas por este reglamento, salvo que acaezca causa imputable a este Ayuntamiento.

4.7. Robos y objetos perdidos.

— El Ayuntamiento en ningún caso se hará responsable de la pérdida o robo de ropa, dinero u objetos de todo tipo. La persona que pierda objetos y prendas será la única responsable de su pérdida o robo.

— Las prendas de vestuario olvidadas o extraviadas que no sean reclamadas en dos semanas serán enviadas a reciclar.

— Objektu baliotsuak Udaltzaingora, galdutako gauzen bulegora, bidaliko dira.

— Objektuak eta jantziak eskatzen dituzten pertsonen sinatu egin beharko dute emandako jantzi eta objektuen erre-gistro-liburuan.

B. ERABILTZAILEREN MOTAK

— Kirol instalazioaren erabiltzailearen definizioa.

Erabiltzailea da udal kirol esparru batera edo hitzartutako kirol esparru batera sartu eta berori erabiltzen duen pertsona oro (aurrerantzean «kirol instalazioak» deituko zaizkie kirol esparru horiei guztiei).

1. Norbanakakoak: Kirol abonatuak, eguneko erabiltzaileak eta jardueretan parte hartzen dutenak.

1.1. Udal kirol abonatuak.

1.1.1. Abonatuak da ordenantza fiskaletan zehaztutako tasa ordaintzen duena.

1.2. Egun bateko erabiltzailea.

1.2.1. Kuota egokia ordaindu ondoren, egun batez, abonatuaren prestazio berdina erabili ahal izango dituen herritarra da.

1.2.2. Horrek ordenantza fiskalean zehaztutako tasa egokia ordaindu eta inprimatutako txartela emango zaio, zerbitzu hori erabiltzeko eskubideren egiaztatagiri bezala.

1.3. Jarduera batean izena eman duten erabiltzaileak, edo kirol instalazio bat erreserbatu dutenak.

1.3.1. Jarduera edo ikastaro baten izena eman edo instalazio bat erreserbatu duten pertsonak dira. Horretarako, uanean uanean indarrean dauden ordenantza fiskaletan aurreikusitako tasak ordainduko dituzte.

1.3.2. 8 urtetik beherako ikastarogileak pertsona laguntzaile batekin sartu ahal izango dira aldagelara. Laguntzailea doan sartuko da, baina haurrari arropa janzten eta erantzten laguntzeko behar den denbora baizik ez du emango bertan. Laguntzaile horiek ezingo dira sartu, inolaz ere, kirol esparruetan, eta ezingo dira zain egon instalazioen sarbideetan.

2. Berak bakarrik aldageletan eta instalazioetan ibiltzeko arazo bereziak dituen erabiltzailearen laguntzailea.

2.1. Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira.

2.2. Era berean, laguntzailetzat hartuko dira 8 urtetik beherako adingabeokarekin zerbitzuetan eta instalazioetan sartzen diren pertsonak.

2.3. Ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik; izan ere, beraien helburu bakarra da bere kabuz eskubide hori erabiltzeko aukera ez duen pertsonen laguntza eskaintzea.

2.4. Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio, erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.

— Los objetos de valor se entregarán en objetos perdidos de la Policía Municipal.

— Aquellas personas que reclamen objetos y prendas deberán firmar un libro de registro de prendas y objetos entregados.

B. TIPOS DE PERSONA USUARIA

— Definición de persona usuaria de instalación deportiva.

Se entiende por persona usuaria toda persona que entre a los recintos deportivos o a recintos deportivos concertados (de ahora en adelante, a todos estos espacios deportivos se les designará por «instalaciones deportivas») con intención de realizar uso de los mismos.

1. Individuales: Personas abonadas, personas usuarias de un día y participantes en actividades.

1.1. Persona abonada del SMD.

1.1.1. Se considerará persona abonada a aquella que pague la tasa fijada en las ordenanzas fiscales.

1.2. Persona usuaria de un día.

1.2.1. Será aquella persona que, abonando la cuota pertinente, se convierte en persona usuaria que puede disfrutar de las mismas prestaciones que las de la persona abonada, por un solo día.

1.2.2. Esta persona abonará la tasa pertinente recogida en las ordenanzas fiscales entregándosele un ticket impreso como documento acreditativo del derecho a acceso a este servicio.

1.3. Personas usuarias inscritas en una actividad o que hayan reservado una instalación deportiva.

1.3.1. Son todas aquellas personas que estén inscritas en alguna actividad, curso o tengan reservada alguna instalación. Para todo ello abonarán las tasas previstas en las ordenanzas fiscales vigentes en cada momento.

1.3.2. Las personas cursillistas que tengan menos de 8 años tendrán la posibilidad de acceder con una persona acompañante a los vestuarios. Está entrará de forma gratuita y no podrá permanecer en el vestuario más del tiempo imprescindible para ayudarles a vestirse y desvestirse. Estas personas acompañantes, en ningún caso podrán acceder a los recintos deportivos ni esperar en los accesos a los mismos.

2. Persona acompañante de una persona usuaria que presente necesidades especiales que no le permitan desenvolverse de forma autónoma en vestuarios e instalaciones.

2.1. Serán acompañantes de una persona usuaria que presente necesidades especiales aquellas que ayuden a otras que, por circunstancias especiales, no puedan desenvolverse de forma autónoma e independiente en vestuarios y zonas deportivas.

2.2. También serán acompañantes aquellas personas que accedan a los servicios e instalaciones con un menor de 8 años.

2.3. No tendrán derecho a uso y disfrute de las instalaciones y servicios, ya que su objetivo es poder facilitar ese mismo derecho a aquella persona que nos es capaz de conseguirlo por sus propios medios.

2.4. La persona acompañante tendrá acceso gratuito, pudiéndose exigir la documentación pertinente que pueda demostrar la relación asistencial entre acompañante y persona usuaria.

3. *Kirol instalazioak darabiltzaten entitateak.*

3.1. Kirol instalazioetan, era kolektiboan eta antolatuan, ohiko entrenamendu eta lehiaketak egiten dituzten kirol entitateak dira.

3.2. Kirol entitate horiek Udalarekin hitzartutako instalazioa erabili ahal izango dute, adostutako egun eta orduetan, baina ez dute izango erabiltzeko bestelako eskubiderik, baimen horietatik aparte.

C. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Erabiltzaileen eskubideak dira:

1.1. Erabiltzeko eskubidea. Erabiltzaile guztiak dute udalak eskainitako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko eskubidea, araudi partikular bakoitzaren arabera, baldin eta instalazio edo zerbitzu horiek eskuragarri badaude eta, era berean, pertsona horiek ez badute inolako zigorrik, instalazioetan sartzeko edo horiek erabiltzeko.

1.2. Arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea. Udal langileek arreta eta trataera egokia izango dute pertsonekin, une oro.

1.3. Erreklamatzeko eta iruzkinak egiteko eskubidea. Erabiltze guztiak dute edozein zalantza, iradokizun edo erreklamazio aurkezteko eskubidea.

1.4. Zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Erabiltzaileek zerbitzu horien prestazioei eta gerta daitezkeen gorabehereri buruzko informazio osoa jasotzeko eskubidea dute. Informazio horretan sartzen da:

- a) Eskuragarri dauden zerbitzuen eta jardueren eskaintza.
- b) Zerbitzuen egutegia, eta ixteko eta irekitzeko ordutegia.
- c) Indarrean dagoen tasen taula eta, horren barruan, zerbitzuak erabiltzeko baldintzak. Hau da, urte horretako ordenantza fiskalak.
- d) Ordutegietan, kuota-tasetan eta erabiltzeko baldintzen aldaketarik izanez gero, horren inguruko iragarkiak.
- e) Zerbitzuetan gorabeherarik edo etenik egonez gero, horren inguruko iragarkiak.
- f) Ikastaro eta jarduera puntualetarako deialdiak.

Informazio hori guztia, gutxienez, Agorrosin Ekintza Guneko publikoaren arretarako bulegoan eskainiko da. Gainerako informazio-bide guztiak osagarriak dira eta Udalak ez du horiek erabiltzeko derrigorrik.

1.6. Hizkuntza-eskubidea. Erabiltzaile guztiak dute arreta euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko eskubidea.

2. *Erabiltzaileen betebeharrak dira:*

2.1. Arauak betetzea. Kirol instalazio eta zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiak errespetatu eta beteko dituzte araudi honetako arauak, bai eta ezarri beharreko gainetako araudiak ere. Erabiltzaileek araudia ez ezagutzeak ez ditu salbuesten arauak bete behar izatetik. Hala, debekatuta dago:

2.1.1. Kirol instalazioetan erretzea, barrukoetan nahiz kanpokoetan.

2.1.2. Instalaziotan jatea edo/eta edatea, horretarako bereziki ezarritako guneetan izan ezik.

3. *Entidades usuarias de las instalaciones deportivas.*

3.1. Son todas aquellas entidades deportivas que, de forma colectiva y organizada, realizan entrenamientos y competiciones regulares en las instalaciones deportivas.

3.2. Estas entidades deportivas tendrán el derecho de uso y disfrute de la instalación acordada con el Ayuntamiento los días y horas convenidas, no otorgándose ningún otro derecho de uso fuera de los permisos otorgados.

C. DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS USUARIAS

1. Son derechos de las personas usuarias:

1.1. Derecho de uso. Las personas usuarias tendrán derecho a utilizar, de acuerdo a cada normativa particular, los servicios e instalaciones que el Ayuntamiento oferte, siempre que las instalaciones o servicios estén disponibles y que, a su vez, estas personas no estén sancionados con alguna prohibición de acceso o uso.

1.2. Derecho a la atención y trato correcto. Las personas empleadas del Ayuntamiento tendrán en todo momento un trato correcto con las personas usuarias.

1.3. Derecho a reclamar y a sugerir. Toda persona usuaria tendrá derecho a plantear cualquier duda, sugerencia o reclamación.

1.4. Derecho a la obtención de información sobre los servicios. Las personas usuarias tienen derecho a recibir una información completa sobre las prestaciones de estos servicios y las posibles incidencias. Esta información incluirá:

- a) La oferta de servicios y actividades disponibles al público.
- b) Horario y calendario de apertura y cierre de los diferentes servicios.
- c) La tabla de tasas vigente que incluirá las condiciones de uso de los diferentes servicios. Esto es, las ordenanzas fiscales del año en curso.
- d) Los anuncios de los posibles cambios de horarios, tipos de cuota y condiciones de uso.
- e) Los anuncios de incidencias o suspensiones de servicios.
- f) La convocatoria de cursos y actividades puntuales.

Toda esta información se facilitará, como mínimo y al menos, en la oficina de atención al público de Agorrosin Ekintza Gunea. Todas las demás vías de información serán complementarias y no de obligado cumplimiento por parte del Ayuntamiento.

1.6. Derecho lingüístico. Toda persona usuaria tendrá el derecho a ser atendida en euskara y castellano.

2. *Son obligaciones de las personas usuarias:*

2.1. El cumplimiento de las normas. Todas las personas usuarias que hagan uso y disfrute de los servicios e instalaciones deportivas deberán cumplir y respetar las normas recogidas en este reglamento y demás normativas aplicables. El desconocimiento de dichas normas por parte de las personas usuarias no les eximirá de su cumplimiento. De esta forma esta prohibido:

2.1.1. Fumar en todas las instalaciones deportivas, tanto exteriores como interiores.

2.1.2. Comer y/o beber salvo espacios y salvedades indicadas específicamente para este tipo de uso.

2.1.3. Animaliak sartzea. (gida txakurrak izan ezik, indarrean dagoen legeriak zehaztutako baldintzetan).

2.1.4. Publizitatea edo propaganda ezartzea, udalak berariaz baimenduta ez bada.

2.1.5. Kirol instalazioetako edozein gunetan beirazko, kristalezko edo metaleko ontziekin sartzea. Arau horretatik kanpo daude jateko eta edateko guneak; ez ordea, gune horien eranskinak.

2.1.6. Instalazioetara patinak, patineteak, bizikletak edo beste edozein lokomozio-bide sartzea, edo bertan horiekin ibiltzea.

2.1.7. Ekipamendua apurtu, erabiltzaileak zauritu, edo horien lasaitasuna eten dezakeen edozein objektu edo elementu sartzea.

2.1.8. 8 urtetik beherako haurrak bakarrik sartzea; pertsona heldu batek lagunduta egon beharko dute. Laguntzailea une oro egongo da adingabearekin, araudia beteko dela ziurtatzeko. Nolanahi ere, debeku hori ez zaie ezarriko ikastaroetan edo antolatutako jardueretan parte hartzen duten adingabeei. Kasu horretan, araudi honen beste atal batzuetan zehaztutako arau espezifikoak ezarriko dira.

2.2. Identifikatzea nahitaezko da. Erabiltzaile orok udalako langileen aurrean identifikatu beharko du, horiek hala eskatzen diotenean. Erabiltzaileak identifikatzeari uko egin ez gero, udal langileek instalazioetan edo zerbitzuetan sartzea uka diezaioke, edota bertatik kanporatu.

2.3. Kontratutako zerbitzuak ordaintzeko betebeharra. Erabiltze guztiak ordaindu beharko dituzte zerbitzuen tasak, urte horretako ordenantza fiskaletan jasota dagoen bezala. Tasak ordaintzen ez badira, administrazio eta kobrantza arautan zehaztutakoa egingo da.

2.4. Instalazioak egoki eta arduraz erabiltzeko betebeharra.

2.4.1. Instalazioak egoki erabiltzeko, ezinbestekoa da kirol jantzi eta oinetako egokiak izatea. Areta edo pista estalietan oinetako bereziak erabili behar dira; hau da, pistetan ez dira inoiz erabiliko kaletik jantzita ekarritako oinetakoak.

2.4.1.1. Erabiltzaileak instalazioen xederako erabili behar ditu instalazio horiek. Beste edozein erabilera egiteko, aurretik udalaren baimena jaso behar da.

2.4.1.2. Arropa-armairuak jarduera egiten den bitartean baizik ezin dira erabili; zentrotik irtetea, hustu egin behar dira. Udalak, egunero, armairu horiek ireki eta garbitu egingo ditu.

2.4.1.3. Instalazioetan dauden eremu eta elementu guztiak erkideak dira. Inork ezin izango ditu erabili berarentzat bakarrik. Ondorioz, araudi honek jasotzen ez dituen egoeretan, erabiltzaileek kasu egin behar diete instalazioko langileen aginduei, eta baliabideak errespetuz eta zentzuz partekatu beharko dituzte.

2.4.1.4. Erabiltzaileek instalazioak txarto erabiliz gero, ragin ditzaketan kalteen erantzule izango dira.

2.5. Zehapen-erregimena betetzeko betebeharra. Betebeharrak betetzean, arduragabekeriak jokatuz gero, eta instalazioen berariazko arauei jaramon egin ezean, udal gobernauk erabiltzailea zigortu ahal izango du, hala nola aldi baterako zigortuz edota honako debeku hauek ezarri:

2.1.3. Introducir animales. (excepto perros guía en las condiciones fijadas en la legislación vigente).

2.1.4. La colocación de publicidad o propaganda sin expresa autorización del Ayuntamiento.

2.1.5. Acceder a cualquier espacio de las instalaciones deportivas con recipientes o envases de vidrio, cristal o metal. Quedan exentos de esta norma los espacios de restauración, no los anexos a estos.

2.1.6. Acceder y circular por la instalación con patines, patinetes, bicicletas o cualquier otro medio de locomoción.

2.1.7. Introducir objetos u elementos que puedan causar lesión, deterioro del equipamiento o perturbar la tranquilidad de las personas usuarias.

2.1.8. El acceso de menores de 8 años sin el acompañamiento de una persona adulta. Está acompañara en todo momento al menor garantizando el cumplimiento de este reglamento. No obstante, esta prohibición no se aplicará a aquellas personas menores de edad que participen en cursos o actividades organizadas. Para estos casos se aplicará la normativa específica regulada en otros apartados de este reglamento.

2.2. Obligación de identificarse. Toda persona usuaria, siempre que se le requiera, deberá identificarse ante el personal del Ayuntamiento. En caso de que la persona usuaria se negará a identificarse, el personal del Ayuntamiento podrá denegar y expulsar del acceso a la instalación y/o a los servicios.

2.3. Deber de pago de los servicios contratados. Toda persona usuaria deberá pagar las tasas correspondientes de los servicios en las formas recogidas en las ordenanzas fiscales del año en curso. Con el impago de las tasas se procederá según lo estipulado en las normas de administración y cobranza.

2.4. Deber de un uso correcto y responsable de las instalaciones.

2.4.1. Para la correcta utilización de las diferentes instalaciones será imprescindible el uso de indumentaria y calzado deportivo adecuado. Debiendo utilizarse un calzado específico para salas o pistas cubiertas, es decir, no usando nunca el mismo calzado que en instalaciones exteriores o aquel con el que se viene de la calle.

2.4.1.1. La persona usuaria utilizará la instalación para el fin programado. Para cualquier variación se deberá contar con la autorización previa del Ayuntamiento.

2.4.1.2. Los armarios roperos sólo podrán ser usados durante el momento de la actividad, siendo obligatorio desalojarlos en el momento de abandonar el centro. El Ayuntamiento, diariamente, abrirá y limpiará estas taquillas.

2.4.1.3. Todos los espacios y elementos existentes en las instalaciones son de carácter comunitario. Nadie particularmente podrá hacer un uso privativo de los mismos. Por lo que en aquellas circunstancias que no contemple el presente reglamento, las personas usuarias habrán de seguir las pautas que marque el personal de la instalación y compartir los recursos con respeto y sentido racional.

2.4.1.4. Las personas usuarias serán las responsables de cualquier desperfecto que puedan ocasionar por el mal uso de las instalaciones.

2.5. Deber de cumplir con el régimen disciplinario. El actuar negligentemente en el cumplimiento de los deberes y hacer caso omiso de las normas específicas de las instalaciones podrá provocar sanciones por parte del gobierno municipal hacia la persona usuaria, tales como la suspensión temporales o prohibiciones del:

— Zerbitzuan edo instalazioan sartzeko debekua, egoki ikusten den aldian, arau-haustearen larritasunaren arabera.

— Jarduera/k edo zerbitzua/k.

— Kasu bakoitzean erabakitzen dena.

2.5.1. Arau-haustea arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, honako irizpide hauen arabera:

2.5.1.1. Arau-hauste arinak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua eten edo oztopatzea ez dakartenak.

2.5.1.2. Arau-hauste larriak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, baldin eta egunean bertan berrekiteko aukera badute eta beste inor kaltetuta ez badago.

2.5.1.3. Arau-hauste oso larriak dira instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, baldin eta egunean bertan berrekiteko aukerarik ez badago edo/eta beste inor kaltetuta suertatu bada.

2.5.2. Arau-haustearen larritasunaren arabera, ekinbide juridiko egokiak ere jar litezke abian. Beraz, araudi honek ez ditu oztopatzen beste prozedura batzuk, indarrean dagoen araudiak jasozten dituenak.

2.5.3. Diziiplina-prozesuak honako urrats hauek ditu:

2.5.3.1. Udal langileek kautelazko neurriak har ditzakete, eta berehala ezarriko dira.

2.5.3.2. Gertatutako guztiarekin, kirol batzordeak kargu-orri bat egingo du, Udal Gobernuak egotzitako gertakizun guztiak jasota.

2.5.3.3. Udal Gobernuak interesdunari jakinaraziko dio diziiplina-prozesua dagoela abian, eta alegazioak egiteko epe bat emango dio. Beharrezkoa bada, audientzia ere egingo da.

2.5.3.4. Udal Gobernuak espedientea ebatzi eta interesdunari eta kirol zerbitzuari horren berri emango die.

2.5.3.5. Arau-haustea eta bakoitzari dagokion zigoren interpretazio egokia egiteko, Tokiko Gobernuak modernizatzeke neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen XI. Tituluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

D. UDAL INSTALAZIOEN ERABILERA

1. Udal kirol instalazioetako arau orokorrak.

1.1. Instalazietako egutegi eta ordutegiak.

1.1.1. Kirol instalazioetako ikasturteko egutegi eta ordutegiak Bergarako Udalak ezarriko ditu.

1.1.2. Egutegi eta ordutegiak kirol instalazio bakoitzean egongo dira ikusgai. Agorrosin Ekintza Guneko harreraren hauek guztiak kontsultatu ahalko dira.

1.2. Ikasturteko egutegi eta ordutegietatik at, kirol jarduera edo kirol jarduera ez den ekintzak antolatzeke:

1.2.1. Gutxienez hilabete bateko aurrerapenarekin, Bergarako Udalarik baimen idatzia eskatu beharko zaio ekintzaren berri zehatza emanez. Baimena ematen den kasuetan antolatzaileraren esku geratzen dira ekintzaren antolaketatik erator daitezkeen ardurak administratibo, tributario, laneko edo bestelako izaerakoak; baita beharrezkoak liratekeen baimen, araudiak betetzea eta antolaketatik erator daitezkeen bestelako gaiak.

— Acceso al servicio o instalación durante el tiempo que se considere oportuno, según la gravedad de la infracción.

— La/s actividad/es o servicio/s.

— Cualesquiera que se dicten para cada caso.

2.5.1. La gravedad de las infracciones se considerarán leves, graves o muy graves según los siguientes criterios:

2.5.1.1. Son infracciones leves aquéllas cuya acción u omisión no interrumpen o interfieren en el funcionamiento de la instalación o servicio.

2.5.1.2. Son infracciones graves las que impiden el funcionamiento de la instalación o servicio afectado, siempre que éste pueda ser repuesto en la misma jornada y no cause perjuicio a terceras personas.

2.5.1.3. Son infracciones muy graves las que impiden el funcionamiento de la instalación o servicio afectado, sin que éste pueda ser repuesto en la misma jornada y/o cause perjuicio a terceras personas.

2.5.2. También en función de la gravedad de la infracción se podrán emprender las acciones jurídicas que correspondan. Por tanto, este reglamento no exime de otros procedimientos que establezca la legislación vigente.

2.5.3. El proceso disciplinario constará de los siguientes pasos:

2.5.3.1. El personal del Ayuntamiento podrá tomar medidas cautelares que serán aplicadas de forma inmediata.

2.5.3.2. Con todo lo acontecido, la comisión de deportes formulará el pliego de cargos que contendrá los hechos imputados al Gobierno del Ayuntamiento.

2.5.3.3. El Gobierno del Ayuntamiento notificará a la persona interesada del proceso disciplinario concediéndole un plazo para alegaciones y si fuese necesario proceder con una audiencia.

2.5.3.4. El Gobierno del Ayuntamiento formulará la resolución del expediente, que notificará a la persona interesada y al servicio de deportes.

2.5.3.5. Para la correcta interpretación de las infracciones y de las sanciones que correspondan se atenderá a lo dispuesto en el Título XI de la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de medidas para la modernización del gobierno local.

D. USO DE LAS INSTALACIONES MUNICIPALES

1. Normas generales de uso de las instalaciones deportivas municipales.

1.1. Calendario y horarios de las instalaciones.

1.1.1. El calendario y los horarios de las instalaciones deportivas durante el año lectivo serán establecidos por el Ayuntamiento de Bergara.

1.1.2. El calendario y los horarios estarán expuestos en cada una de las instalaciones deportivas. Asimismo, podrán consultarse en la recepción de Zona de Actividades de Agorrosin.

1.2. Fuera del calendario y los horarios correspondientes al año lectivo, para organizar cualquier actividad deportiva o actos que no sean propiamente actividades deportivas:

1.2.1. Será necesario pedir permiso por escrito al Ayuntamiento de Bergara con un mes de antelación como mínimo, indicando exactamente el tipo de actividad de que se trata. Si el permiso es concedido, los organizadores asumirán todas las responsabilidades administrativas, tributarias, laborales y de otro tipo que la organización de la actividad pudiera acarrear, así como los permisos necesarios, el cumplimiento de las normas y demás temas derivados de la organización.

1.2.2. Bergarako Udalaren baimena izateak ez du adierazi nahi udalak ekintzaren antolaketetaik erator daitezkeen erantzukizun eta kalte ordainen arduradun egiten denik.

1.2.3. Erabilera mota bakoitza indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera ordainduko da.

1.3. Publizitatea ipintzea. Kirol instalazioetan publizitatea ipintzeko Udalaren baimena eduki behar da. Horretarako hila-bete lehenago ipini nahi den publizitatearen xehetasun denak aurkeztuz eskaera egin beharko da. Baimenik gabe ezin daiteke publizitaterik ipini.

1.4. Udal kirol zerbitzuko araudi hau betetzen ez bada, edota, erabiltzaileen baten erabilera desegokia dela-eta, udalak eskuduntza osoa izango du batetik kalte-ordainak eskatzeko eta bestetik erabiltzaile zehatzei erabilera ukatzeko.

1.5. Aldagelak.

1.5.1. Kirol instalazioetako aldagelak eta bere takilak, soilik eta bakarrik, dagozkion instalazioak erabiltzeko izango dira.

1.5.2. Aldageletan, eraikineko beste aldageletan bezala, ez da higiegn pertsonaleko jarduerak egiten utziko: Bizarra egin, depilatu, azkazalak moztu eta abar.

1.6. Araudi honetan jasotzen ez diren salbuespen egoerak udalaren esku geratuko dira.

2. Udal pilotalekuen erabilera arauak.

2.1. Araudi zehatz hau pilotaleku hauetan aplikatzeko egin da:

Fraizkozuri udal pilotalekua Frontón municipal Fraizkozuri	Basalgoko udal pilotalekua Frontón municipal de Basalگو	Uberako udal pilotalekua Frontón municipal de Ubera	Osintxuko udal pilotalekua Frontón municipal de Osintxu
Torrekua udal pilotalekua. Frontón municipal de Torrekua	Espaloiko udal pilotalekua Frontón municipal del Espolón	Angiozargo udal pilotalekua Frontón municipal de Angiozar	Elosuko udal pilotalekua Frontón municipal de Elosu
Boluko udal pilotalekua Frontón municipal de Bolu	San Prudentzioko udal pilotalekua Frontón municipal de San Prudencio		

2.2. Ordu-tegi eta egutegiak.

2.2.1. Pilotalekuetako egutegi eta ordu-tegiak Bergarako Udalak ezarriko ditu azaroan.

2.2.2. Hauek ezartzeko, eta auzo elkarten erabilera duten pilotalekuetarako, elkarte horien iritzia jasoko du udalak.

2.2.3. Abenduan, udal kirol zerbitzuko erabiltzaileen-tzako alokairu orduak zozketatuko dira.

2.2.4. Egutegi eta ordu-tegiak pilotalekuetako iragartale-tan egongo dira ikusgai eta Agorrosin Ekintza Guneko harreran hauek kontsultatzeko aukera egongo da.

2.3. Kirol jarduerak.

2.3.1. Udal pilotalekuetan baimenduta dauden kirol jar-duera bakarrik euskal pilotako aldaerak (erremontea ezik) eta eta frontenisa dira.

2.3.2. Udalak, beharrezkoak diren uneetan beste salbues-peneko kirol- eta kultur-jarduerak baimendu ahalko ditu.

1.2.2. Disponer del permiso del Ayuntamiento de Bergara no supone que el Ayuntamiento asuma las responsabilidades e indemnizaciones que pudieran derivarse de la organización de dicha actividad.

1.2.3. Cada tipo de uso de abonará conforme a las ordenanzas fiscales vigentes.

1.3. Colocación de publicidad. Para colocar publicidad en las instalaciones municipales es necesario disponer del permiso del Ayuntamiento. A tal fin, la persona interesada deberá presentar una solicitud con un mes de antelación, especificando todos los detalles de la publicidad en cuestión. Sin permiso, no se puede poner publicidad.

1.4. En caso de incumplimiento de esta norma del Ayuntamiento o de un uso incorrecto de la misma por parte de alguna persona usuaria, el Ayuntamiento tendrá plena potestad de exigir indemnizaciones y de negar a determinadas personas usuarias el acceso a las instalaciones.

1.5. Vestuarios.

1.5.1. Los vestuarios de las instalaciones deportivas y sus taquillas únicamente podrán ser utilizados por las personas usuarias de las instalaciones correspondientes.

1.5.2. En estos vestuarios, así como en el resto de los vestuarios del edificio, no se permitirá la realización de actividades de higiene personal, tales como afeitarse, depilarse, cortarse las uñas, etc.

1.6. Corresponde al Ayuntamiento determinar las situaciones de excepción no recogidas en esta norma.

2. Normas de uso de los frontones municipales.

2.1. Esta norma en concreto ha sido elaborada para su aplicación en los siguientes frontones:

2.2. Horarios y calendarios.

2.2.1. El calendario y los horarios de los frontones serán establecidos por el Ayuntamiento de Bergara en noviembre.

2.2.2. Para su establecimiento y en el caso de los frontones utilizados por las asociaciones vecinales, el Ayuntamiento recabará la opinión de estas asociaciones.

2.2.3. En diciembre se sortearán las horas de alquiler para las personas usuarias.

2.2.4. El calendario y los horarios de uso estarán expuestos en los tablones de anuncios de los frontones, pudiéndose consultar asimismo en la recepción de Agorrosin Ekintza Gunea.

2.3. Actividades deportivas.

2.3.1. Las únicas actividades deportivas permitidas en los frontones municipales son las distintas variedades de pelota vasca (excepto el remonte) y el frontenis.

2.3.2. Excepcionalmente, el Ayuntamiento podrá autorizar otras actividades deportivas o culturales cuando sea necesario.

3. Labegaraietako kiroldegia.

3.1. Erabilera anitzeko barruko eta kanpoko kantxak.

3.1.1. Barruko kantxa estalia.

